

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

445/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ane Miren Karmele Lasa Arizketa Andrea Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertu dugu Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarilaren 31ko 154/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ane Miren Karmele Lasa Arizketa andrea deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Ane Miren Karmele Lasa Arizketa andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Erizain lanpostu funtzionalaren 21561 plazaren jabea dena, Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:


Lehenengoa.- Ane Miren Karmele Lasa Arizketa andrea Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Ane Miren Karmele Lasa Arizketa andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 10ean

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ****EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN ETA KONSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO